

BIOGRAFIA

- Asteasuko **Goikoerrotan** jaio zen.
- **Bertsolari familia** dira Goikoerrotakoak. Pelloren anaia Joan Kruz, arreba Sabina, Mikel Anton eta Mikaela seme-alabak...
- **Apustu giroa** (idi probak, sega apustuak...) ziren nagusi Asteasun bere denboran. Eta **miseria**; txanpon askorik gabe bizitza aurrera ateratzeko garaiak.
- Bizibidez **errotaria** bazen ere, **bertsoa lanbide osagarri** gisa erabili zuen lehen bertsolarietakoa izan zen.
- Dei asko izaten zuen: herriz herri, festaz festa, txapelketa, desafioak...

Hain **ospetsua** egin zen, non 1895. urtean joan-etorri osoa ordainduta **Argentina** eraman zuten hango euskaldunei kantatzera.

Gizon txikia, bizkor eta bizia, dena ziria eta eztena.



**Pedro Jose
Elizegi Maiz
"Pello Errota"**
(Asteasu, 1840 - 1919)

Bota
dinki!

TXIRRITAREN ALKANDORA



Doinua:

**Mando baten gainean /
Zortziko txikia**

PELLOREN ASTOAK

Pello astoarekin zihoala, norbaitek burlan bota zion:

Begi bat itsua da,
hanka bat **ausiya**,
ilundu ezkeroztik
ezin **ikusia**,
pausajia ere
ez dauka **biziya**,
bere modukua da
horren **nagusiya**.

Eta Pellok erantzun:

Anega t'erdi arto
dauzka **bizkarrian**,
ni bezela dijua
pauso **azkarrian**,
mantentzen errexu da:
jaten du **larrian**,
horretxek serbitzen nau
bere **baldarrian**.

Pellok urtean bitan astoari kafea ematen zion
(Eguberritan eta San Pedrotan), esanaz:

-To, har zak; guk ere hartu diagu-ta!



Doinua:

**Ari naizela ari naizela
Zortziko handia**

Pello Errota

Ari naizela, ari naizela,
hor ikusten det **Txirrita**,
eta zein ez da harrituko, gaur,
gizon hori **ikusita**;
dudarik gabe egina dio
andregaiari **bisita**,
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora **jantzita!**

Txirrita

Hauxe da lotsa eman didana
gizon artera **sartuta**,
edozer gauza esaten degu
ardo-tantokin **poztuta**;
bi alkandora ekarri ditu
bat erantzia **ahaztuta**,
Pellok bi nola jantziko ditu
bat besterikan ez **du-ta!**